

Argi dago egilea fede sendo baten barnean dagoela. Hala ere idekitasun handiko gizona ageri da. Agnostikotasuna, ulertu ez ezik, oso normaltzat hartzen du; baina ezeptikotasuna ezinezkoa iduritzen zaio. Bizitzaren izateak berak kezkatzen bai du gizona. Tartean pluralismoa ere aipatuko digu, edonork haintzat hartzekoa denez.

Aspaldiko gaia izanik, gaurkotasunik ezin zaio ukatu. Bide horietatik zerbait apartetxo gabiltzanontzat ere badu zer irakatsi. Eliza gaiaz jakintzaz beteriko liburu irakurgarria. Hizkuntza ordea, aberatsa eta aldi berean argia eta erraza, egile prosalari bikaina denez.

ZOFIA SZLEYEN.—*Czekajac na lubego. (Poezja miłosna dawnej Hiszpanii)*. Wybrała, przelożyła i opatrzyła posłowie. Wydawnictwo Literackie. Kraków, 1981.

Krakobian agertu zen Hispaniako poesiaren bilduma hau. Gaztela, Portugal, Galizia eta Kataluñako hizkuntzetako poesian artean dator Euskal Herrikoaren presentzia ere. Beti ere on da herbestekoez gure literaturatik zer hautatzen duten jakitea. Lehenago alemanera Frey eta Brettschneider-ek itzuli eta argitaratuaren berri eman genuen (ikus *Egan*, 1983. urtekoa bere 219. orrialdean) eta orain Jan Braun euskalariak polakora itzuliz argitaratuaren berri dakargu.

Euskal Herrikoarik lau poema baizik ez dira, XVII. mendekotzat jotzen ditugun balada eta erromantzeak.

Jan Braun-ek itzuliak, seguruaski ber-berak hautatuak, liburuaren 135-144. orrialdeak osatzen dituzte, izenburu honen pean: «Ballady i Romance baskijskie, Wiek XVII (Przekłady dokonane przy współpracy filologicznej doc. dra Jana Brauna)».

Hara hemen zeintzuk osatzen duten: *Narieczona z Atharratz* (Atharratzeko ezkongai); *Pierwszy kwiat* (Lehen floria);

Ptaszyno, dokad... (Xorittua, nurat hua...) eta *D studni z dzbanem* (Goizean goiz jeikirik). Azken hau, agiri denez, Jorge Riezuren *Nafarroako euskal-kantu zaharrak* deritzan bildumatik hartua (64. zenbakiduna).

Erdarazkoetan, zenbait ononimoz gainera, Cervantes, Góngora, Lope de Vega, Quevedo..., eta, esan bezala, zenbait gailego, katalan eta portuges.

Ez da liburu handia. 167 orrialde baizik ez ditu 19 x 19 zm. neurrian.

ნან ბრაუნის - ბასკოლოგიის შესავალი (ლექციების კურსი)

ავად. არნ. ჩიქობავას. წინასიტყვაობითა და რედაქტორობით. თბილისის უნივერსიტეტის გამომცემლობა. თბილისი, 1984.

Euskal Ikaskuntzarako Sarrera da, georgieraz idatzia. Egi-lea Jan Braun poloniar euskalaria eta argitaratzeilea Tbilisi-ko Unibertsitatea, 1984-an.

Georgieraz ez dakigunez, edukinetik eta bereziki bibliografiatik ohartzen gara liburuaren edukinez eta balioz.

Hara hemen bere aurkibidea: Arn. Chikobava-ren hitzaurrea. Atarikoa. I.—Euskaldunak. Ezaugarri nagusiak. II.—Euskaldungoaren historia. III.—Euskalaritzaren historia. IV.—Hizkuntzaren geografia, jatorria eta adierazpena. V.—Fonologia eta fonetika. VI.—Morfologia. Substantiboak eta adjetiboak. VII.—Izenak. Numeralak. VIII.—Aditza. IX.—Joskera. Eta bukatzeko bibliografia.

Besteak beste, bibliografia hortatik ikusten dugu non oinarritua duen bere lana: G. Lacombe, R. Lafon, J. Allières, H. Gavel, L. Mitxelena, N. Moutard, H. Schuchardt, P. Lafitte, I. L. Mendizábal, P. Zamarripa, K. Bouda, E. Lewy, R. M. Azkue, P. Lhande, D. Alzo, H. R. Marr, C. C. Uhlenbeck, R. R. Braun eta beste.